


STM

San Telmo Museoa

Zuloaga plaza 1
20003 Donostia – San Sebastián
Telefonoa: 943 48 15 80
santelmo@donostia.org
www.santelmomuseoa.com

San Telmo Museoa 

MODERNITATEAREN HASIERA IBILBIDE OROKORRA

2. TALDEA Ikasleentzako koadernoia

DBHko bigarren zikloko ikasleentzat



LURRALDETASUNAREN ALDETIKO BEGIRADA HISTORIKOA



2.1. ARIKETA



Goiko klaustroan, "Hirien hazkundea eta modernizazioa" aldean.

1863an harresiak eraisten hasi arte, Donostia gaur egun Alde Zaharra diogun barrutira mugatua zegoen; handik kanpo eraikinak bazeuden, baina hiritartu gabe.

- Bila ezazue Donostiako lehen Zabalgunearen planoak. Zein garraiobide, orduan berritzaile, agertzen zen ibaiaren beste aldean?

Pista bat: oso hurbil dituzue garraiobide berriari buruzko objektuak.

.....



2.2. ARIKETA



Goiko klaustroan, "Eskubideen lorpena" aldean.



Lehendabiziko Euskal Autonomia Estatutua Gerra Zibilean onetsi zen. Frankismoak, beste eskubideekin batera, estatutu hura bertan behera utzi zuen.

- Nola zuen izena lehendabiziko lehendakariak?

.....



2.3. ARIKETA



Goiko klaustroan, "Belaunaldi zaratatsua" aldean.

- Bila ezazue euskararen aldeko mugimendua sinbolizatzen duen objektu bat, oraindik orain bi urtean behin Euskal Herriko kaleetan eskuz esku ikus daitekeena.

.....



MODERNITATEAREN HASIERA

Ibilbide orokorra

ONDAREA KONTSERBATZEKO GARRANTZIAZ SENTIBERATASUNA AREAGOTZEKO ARIKETAK:

- San Telmoko ia bostehun urte ditu. Orain guztiz zaharberritua dago. Baina, iraungo badu, kontuz ibili behar da. Horregatik ezin dira gauzak ukitu, ezta harriak ere, gogor gogorrak izan arren.

Hona hemen hareharri bat, San Telmoko harriak bezalakoa. ***Igurtzi*** eskuz:

Zer gertatzen da?

.....

- Papera asmatu ez balitz, ez genuke gure historiaz ia ezer ere jakingo. Baina papera oso delikatua da, ukitu gabe ere hondatu egiten da eta.

Konparatu orri bat, ilunpean kontserbatutako aldea eta argitan gordetako.

Zein orrialde kontserbatu da hobeto?

.....

- Zertarako balio dute museoetako gauzek, ezin badira erabili?

Bada... hain zuzen, denboran zehar iraun dezaten! Eta hala ere, lanak! Burdina bera, oso gogorra izanagatik ere, hondatzen da kanpoan utzita.

Ezetz asmatu zein den burdinaren ***etsairik okerrenetako bat!***

- Begiak: ikusteko, argia behar dutelako.
- Hatz-mamiak, haiekin laztantzen dugulako.
- Ahotsa, hitz egiten dugunean beti eskapatzen zaigulako tua, tanta mikroskopikoak badira ere.

- Giroa hezeegia edo lehorregia bada, edo hotzegia edo beroegia, landare- eta abere-zuntzezko materialak narriatu egiten dira.

Baina okerrena aldaketak dira, horrela hondatzen dira gehien egurra, larrua, oihalak (artilea, lihoa, kotoia...), eta abar. ***Konparatu*** material berberak: zeintzuk daude hobeto eta zeintzuk okerrago?

.....





MODERNITATEAREN HASIERA

Ibilbide orokorra

donostia**kultura**.com



Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián



DONOSTIA 2016
SAN SEBASTIAN

Erakunde laguntzaileak:

San Telmo Museoa



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputacion Foral de Gipuzkoa

Patrono pribatuak:



EL DIARIO VASCO



berria^{ntv}

GARA

naiz:

